

BILBOKO BALIOEN HIRIA SARIEN DEIALDIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK HIRUGARREN ALDIA

BILBO BALIOEN HIRIA proiektua sortu da analisi, elkarrizketa, gogoeta eta lanerako gune baten bidez, zeina beste erakunde, entitate, enpresa, hedabide, talde politiko eta herritarrekiko elkarlanean jarduten baita. Hala, lan horren ondorioz, BALIOEN AGIRI bat onetsi zen, 17 balio identifikatuz hiriaren bereizgarri gisa eta Bilboren datozen urteotako garapena gidatu beharko luketenen gisa. Agiri horretan jasotako 17 balio horietako bakoitzak konpromiso bana dakar berekin.

Baina balio horiek ez dira berriak, lehendik daude gure urian, eta balio horiek sustatzeko eta garatzeko era bateko eta besteko eragileak dagoeneko egiten ari diren guztiari ezagutza agertzeko, Bilboko Udalak erabaki du BILBO, BALIOEN HIRIA sariaren hirugarren aldirako deialdia egitea.

Deialdi honen helburua hauxe da: ezagutza publikoa agertzea Bilboko Balioen Agirian jasotako balioetako bat edo hainbat sustatzen edo garatzen dituzten ekimenei, gauzatu direnei edo gauzatzen ari direnei auzoetan, barrutietan edo hirian.

Oraingo egoera berezia denez, edizio honetan, COVID 19k sortutako egoeraren aurrean egoera horretarako ekintza egokiren bat garatu duten ekimenak baloratuko dira.

1.- HELBURUA

Saritzea eta jendaurrean aitortzea ekimen hauek gauzatu dituzten edo gauzatzen ari diren eragileen lana: alegia, Bilbon Bilboren Balioen Agirian jasotako balioen bat edo batzuk sustatzen edo gauzatzen dituzten ekimenak.

2.- SARIA

Saria izango da 3.300€-ko diru-zenbatekoa ematea entitate irabazleei, BILBO BALIOEN HIRIA proiektuarekiko eta BILBOKO BALIOEN AGIRIarekiko konpromisoagatik ezagutza agertzeko jendaurreko ekitaldi batean.

Irabazle gertatzen den entitateak deialdiaren xedearekin zerikusia duten helburuetarako baliatu beharko du emandako diru hori.

Hiru sari emango dira, kategoria bakoitzerako bana.

Saria irabazi duenik ez dela izan adierazi eta saririk ez ematea ere gerta daiteke.

3.- KATEGORIAK ETA PARTE HARTZAILEAK

3 sari-kategoria sortzen dira:

1.- **Irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitateek** Bilbon gauzatutako proiektuetarako sariak; elkarte eta entitate horiek Bilboko Udalaren Herritarren Partaidetzako Entitateen Entitateen Erregistroan izena emanda egon behar dute.

2.- **Bilboko ikastetxeek** garatutako proiektuetarako sariak: betiere, haur hezkuntzako, derrigorrezko lehen hezkuntzako edo bigarren hezkuntzako, batxillerreko eta/edo erdiko mailako formazio zikloetako ikasleek parte hartu behar dute proiektu horietan.

3.- **Enpresek, saltokiek, ostalaritzako establezimenduek, lanbide elkargoek edo antzeko entitateek** garatutako proiektuetarako sariak: Bilbon egon behar dute kokatuta.

Elkarte edo erakunde bat jarduera ekonomikoa duten talde profesionalek (merkatariak eta beste batzuk) osatzen badute, hirugarren sari-modalitatean lehiatu ahal izango da, Bilbon kokatuta dauden enpresek, saltokiek, ostalariek, lanbide elkargoek edo antzeko beste entitate batzuek garatutako proiektuetarako, izan ere, erakundeak irabazi-asmorik ez badu ere, bazkideek bai.

4.- BALDINTZAK

a) Proiektu guztiek izan behar dute zerikusia Bilboko Balioen Agiriak jasotzen dituen 17 balioetakoren bat edo batzuk garatzearekin.

b) Sarira aurkezteko, erakundeak, ikastetxeak, enpresak, etab. Bilboko Balioen Agiriari atxikita egon behako dute.

c) Proiektu guztiek eginda egon beharko dute edo ezarpen-prozesu aurreratuan. Oraindik hasi gabeko edo ideia-fasean dauden proiektuak ez dira onartuko. Izan ere, proiektuak edizio batean baino gehiagotan aurkez daitezke, baldin eta proiektua garatzen jarraitzen bada. Urte batean aurkezteak eta ez irabazteak ez du baliogabetzen beste urte batean egiteko aukera.

d) Aurkezten diren proiektu guztiek zehatzak izan behar dute, eta ikastetxeen, enpresen edo elkartearen eguneroko jardueratik haratago joan behar dute. Saria proiektu jakin bati emango zaio, ez jarduera orokorrari edo urteko memoria bati.

e) Proiektu guztiek genero-ikuspegiarekin eta hizkera ez-sexistarekin lotutako alderdiak jaso beharko dituzte.

f) Parte hartzen dutenek beterik izan behar dituzte zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak eskabidea aurkezten den egunean (Bilboko Udalak ofizioz egiaztatuko du hala dela).

5. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Saria emateko, honako balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Zer helburu dituen proiektuak eta zer lotura duten Bilboko Balioen Agiriarekin.
- Sormena (ikuspuntuaren originaltasuna eta proiektuaren izaera berritzailean).
- Zer iraupen izango duen denboran, zer maiztasun izango dituzten aurreikusitako jarduerak eta jarduerak orotara zenbat iraungo duten.
- Zenbat pertsonak parte hartuko duten.
- Zer lurraldetan eta sektoretan aplikatuko den.
- Ba duen edo ez belaunaldiarteko izaerarik eta nola eragiten dituen berdintasuna eta gizarte kohesioa.
- Diziplina anitzeko izaera eta talde desberdinen artekoa izatea.
- Baliatzen den edo ez sariaren diru zenbatekoa deialdiaren helburuarekin zerikusia duten helburuetarako
- Ekimenak COVID-19ak sortutako egoerarekin duen lotura.

6.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Herritarren Arretako eta Partaidetzako eta Nazioarteko Gaietako Sailak prestatu duen eskabide-orri eredua erbili eta bete beharko da, sari hauetan parte hartzeko behar diren alderdi guztiak biltzen dituen. Hona hemen zeintzuk:

ENTITATEARI BURUZKO DATUAK:

- Sariaren izena: BILBO BALIOEN HIRIA SARIAK, eta zein kategoriatarako aurkezten den.
- Zein entitate, ikastetxe edo enpresa, saltoki, ostalaritzako establezimendu, lanbide elkargo edo antzeko entitateen izenean aurkezten den, bada, haren egiaztapen datuak.
- Proiektua aurkezten duen pertsonaren izen-deiturak eta entitate, ikastetxe edo enpresa, saltoki, ostalaritza, lanbide elkargo edo antzeko entitate horretan betetzen duen kargua.
- Proiektua aurkezten duen pertsonaren identifikazio agiri ofiziala (zenbakia), posta helbidea eta posta elektronikoaren helbidea eta harremanetarako telefonoa.
- Erantzukizun peko adierazpena, adieraziz ez diotela eragiten Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan ezartzen diren debekuek eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 24.2 artikuluan ezartzen diren debekuek (4/2005 Legea), eta beterik dituela zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak eskabidea aurkezten den egunean (Bilboko Udalak ofizioz egiaztatuko du hori).

PROIEKTUARI BURUZKO DATUAK

- Proiektuaren izena
- Proiektuaren deskripzio laburra, haren ezaugarri nagusiak bilduz (gehienez 150 hitz)
- Zer helburu dituen proiektuak eta zer lotura duten Bilboko Balioen Agiriarekin.
- Aipatu behar da Bilboko Balioen Agiriko zein baliorekin duten zerikusia (balio bat edo hainbat).
- Zer jarduera gauzatu den (edo diren).
- Zein pertsonak edo taldek parte hartu duten jarduera horietan, adinen arabera eta intereseko beste ezaugarri batzuen arabera.
- Zer leku eta gunetan gauzatu diren jarduera horiek.
- Zenbat iraun duten eta zer maiztasun izan duten jarduera horiek.
- Proiektuarekin lortutako emaitzen ebaluazioa, lortu nahi ziren helburuen arabera.
- Saria irabaziz gero, zertarako baliatuko den sariaren diru-zenbatekoa.

- Beste alderdi batzuk, aurkeztutako eta gauzatutako proiektua hobeto aditzeko baliagarri irizten zaienak.
- Era berean, argazkiak eta ikus-entzunezko euskarriak ere aurkeztu ahal izango dira jarduerak nola gauzatu diren eta zein pertsonak parte hartu duten ikusteko.

Sarietara aurkeztu diren proiektuak eta hirian balioen harira garatzen ari diren arlo eta lanak ezagunak izan daitezzen Bilboko Udalak entitateen eta euren proiektuen berri eman dezakeenez hala proiektuaren izena nola deskripzio laburra euskaraz eta gazteleraz aurkeztu beharko dira.

7.- PROIEKTUAK ETA AGIRIAK AURKEZTEA

Egoki iritzi adina proiektu aurkeztu ahal izango da, baina bakoitzeko eskabide bana aurkeztu beharko da (proiektu bakoitzerako eskabide-orri eredu bana beteta), eta saria bakarra izango da, hainbat proiektu aurkeztu arren.

Saria irabazteko aurkezten diren proiektuak Herritarren Arretako eta Partaidetzako eta Nazioarteko Gaietako Sailari igorri beharko zaizkio posta elektronikoz (participacion@bilbao.eus), edo udal erregistroaren bidez HERRITARREN ARRETAKO ETA PARTAIDETZAKO ETA NAZIOARTEKO GAIETAKO SAILARI zuzendu.

Proiektuak aurkeztuz gero adituko da berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarriek ezartzen dituzten baldintzak eta epaimahaiak onartutako erabakiak.

8.- PROIEKTUA(K) AURKEZTEKO EPEA

Proiektuak aurkezteko epea hasiko da deialdiaren iragarkia BAOn argitaratu eta hurrengo egunean, eta amaituko da **2021eko urtarrilaren 20an**.

y finalizará el 20 de enero de 2021.

9.- EPAIMAHAIA

Epaimahaiaren osaera:

1.- Epaimahaiburua: Alkatea izango da, baina Herritarren Arretako eta Partaidetzako eta Nazioarteko Gaietako Saileko zinegotzi eskuordearen gain utzi ahal izango du.

2.- Kideak:

- Pertsona bat, Herritarren Arretako eta Partaidetzako eta Nazioarteko Gaietako Saila ordezkatzuz.
- Pertsona bat, Berdintasun Saila ordezkatzuz.
- Pertsona bat, Euskara eta Hezkuntza Saila ordezkatzuz.
- Bi pertsona, Hiri Kontseilua ordezkatzuz.

3. Idazkaritza: Herritarren Arretako eta Partaidetzako eta Nazioarteko Gaietako Saileko kideek beteko dute idazkari kargua.

4.- Epaimahaiari laguntza teknikoa emateko eginkizunak, hala balegokio, Bilboko Udaleko Herritarren Arretako eta Partaidetzako Nazioarteko Gaietako Sailak bere langileen artean izendatutako pertsona batek beteko ditu.

Bilboko Udaleko Herritarren Arretako eta Partaidetzako Nazioarteko Gaietako Sailak bere esku izango du oinarri hauek interpretatzea, hala behar balitz, eta bai ere determinatzea epaimahaiaren jarduteko arauak, eta bere esku izango ditu saria emateari buruzko ahalmen gorenak, edo, hala balegokio, sariak eman gabe uzteari buruzkoak.

3/2007 Lege Organikoaren 53. artikulua oinarritzat hartuz (3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrari buruzkoa), eta bat etorritik Bilboko Udalaren emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako IV. Planak ezarritako jardute-printzipioekin, epaimahaiaren osaera emakume eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioaren arabera izango da.

10.- EPAIA

Epaimahaiak, behin epaia emandakoan, saria Uriko Gobernu Batzarrari emateko proposamena aurkeztuko du.

Epaia sarietan parte hartu dutenei jakinaraziko zaie 2021. urteko lehen seihilekoan.

Epaimahaiaren epaia onartzeko, hura osatzen duten kideen gehiengo soilak beharko da, eta ezingo da haren kontra apelatu.

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar beraren oinarriak onartzea.

11- SARIAK BANATZEA

Sariak berariaz horretarako antolatutako jendaurreko ekitaldi batean banatuko dira; ekitaldia Bilbon izango da, irabazleei, gainerako parte hartzaileei eta herritar guztiei dagokionean jakinaraziko zaien datan.

12.- SARIA KUDEATZEA ETA BALDINTZAK ONARTZEA

Herritarren Arretako eta Partaidetzako Nazioarteko Gaietako Sailari dagozkio deialdi honek berekin dakartzan kudeaketa lanak.

BILBO BALIOEN HIRIA SARIAK irabazteko proiekturen bat aurkeztuz gero, aditzera ematen da onartzen direla OINARRI hauek, eta, halaber, baimena ematen dela irudiz nahiz proiektuaren izenburuz, hura garatuko duen entitatez zein proiektuaren deskripzio laburrez egin dadin proiektuon zabalkundea, Bilboko Udalaren ohiko bitartekoen bidez, hala nola argitalpen bat egitea edo web orrialde baten sartzea.

Proiektuak aurkezten dituztenek baimena ematen diote Bilboko Udalari egilea nor den aipa dezan deialdi honekin zerikusia duen edozein zabalkunde jardueratan, hargatik sorrarazi gabe eskubide ekonomikorik edo sariak berak dakartzan diru zenbatekoaz eta bestelako prestazioez besteko onurarik.

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Bilboko Udalaren eta haren organismo eta zuzenbide publikoko entitateen deialdia medio dirulaguntzak emateko ordenantza orokorra aplikatuko da ordezko eta osagarri gisa, zeina 2016ko ekainaren 30ean onetsi baitzuen udalbatzarrak eta 2016ko uztailaren 20an argitaratu baitzen BAO (138. zk.).

ERANSKINA

BILBOKO BALIOEN AGIRIA

Giza Eskubideen Errespetua

- Bilboko biztanleak Giza Eskubideen adierazpen unibertsalean aldarrikatutako eskubide eta askatasun guztien jabe dira. Eskubide horiek berdinak dira pertsona ororentzat, besterenezinak eta unibertsalak.
- Gure konpromisoa: Bilbon bizi diren pertsona guztien oinarritzko eskubideak errespetatzea, bermatzea eta sustatzea, pertsona guztiek -bakoitzaren inguruabarrak kontuan hartu gabe- euren duintasunaren arabera bizi ahal izateko behar diren baldintza sozialak, ekonomikoak eta kulturalak bultzatuta.

Justizia soziala

- Gure ustez, justizia soziala da ondasun sozialen bidezko banaketa lortzea, horrela pertsona guztien duintasuna eta gizarte-kohesioa bermatuko baitira gure urian. Premisa bat bete behar da horretarako, guztien ongia interes pribatuaren gainetik egotea.
- Gure konpromisoa: aberastasuna berriro banatzeko benetako eta behar besteko mekanismo eraginkorrak ahalbidetzea, oinarritzko askatasunak baliatu ahal izateko gutxieneko baldintza materialak bermatu daitezen.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

- Gure ustez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna pertsonen duintasun unibertsalean oinarritutako balioa eta nazioarteko zuzenbidearen obligazioa da; gainontzeko oinarritzko eskubideen inspirazio-iturria ere bada. Berdintasunak esan nahi du diskriminaziorik ez egotea eta aukeretan eta baliabideetan ere berdintasuna egotea.
- Gure konpromisoa: emakumeak gizarteko eremu guztietan presentzia aktiboa izatea bultzatzea; emakumeen eta gizonen arteko erantzunkidetasunaren alde lan egingo dugu eta genero-indarkeriaren aurrean, 0 tolerantzia.

Elkartasuna

- Gure ustez, elkartasuna da egoera bidegabeen aurrean gure urian erantzukizun partekatua izatea eta horretaz jabetzea.
- Gure konpromisoa: bidegabekeria-egoerei buelta emateko jardutea, egoera ahulean eta desabantailan dauden pertsonen edo taldeen alde eginda.

Aniztasuna eta inklusioa

- Gure ustez, dibertsitatea/inklusioa da pertsonen arteko aldeak errespetatzea, euren orientazio eta nortasun sexuala, kultura, erlijioa, aukera ideologikoa eta politikoa, gaitasun funtzionala eta bestelako inguruabarrak zein-nahi izanda ere.
- Gure konpromisoak: aniztasuna ikusaraztea; inguru baztertzailak ezereztea eremu eta inguruabar guztietan; kultur arteko elkarriketarako eta aniztasunaren onarpenerako zeharkako proposamenak garatzea; sektore anitzen parte-hartzea eta inklusioa sustatzea; bereizkeria nola sortzen den erakustea, modu pedagogikoan; eta gure urian aurreiritziak eta estereotipoak elikatzen dituzten diskurtsoei aurre egitea.

Konpromisoa

- Gure ustez, konpromisoa da beste pertsona, instituzio, enpresa edo erakunde batzuen aurrean hartzen edo onartzen den betebeharra. Konpromisoa da gure uria osatzen duten pertsonak, banaka edo taldean, onartzen duten arduren multzoa, beren gaitasunak eta ahalmenak guztion ongiaren zerbitzura eta helburu kolektibo partekatuen zerbitzura jartzeko.
- Gure konpromisoa: baliabideak eta bitartekoak jartzea guztion ongiaren zerbitzura eta helburu kolektibo partekatuen zerbitzura, hortik datozen betebeharrak onartuz.

Ingurumenaren arloko jasangarritasuna

- Uste dugu ingurumenaren arloko jasangarritasuna gure uriko ekosistema epe luzean gorde ahal izatea berrmatutuko duten giza jardueren garapena dela. Horrek esan nahi du espazioak eta baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea, hondakinak modu egokian kudeatzea eta ingurumena errespetuz tratatuko duten jokabideak sustatzea.
- Gure konpromisoa: ingurumenaren arloko arazoei buruzko kontzientzia hartzeko ekintzak bultzatzea; kontsumoko ereduak eta bizitzeko moduak aldatzea; gure uriko ekosistemaren inguruko jarrera arduratsuagoa, konprometituagoa eta solidarioagoa; baliabideen erabilera eraginkorrerako irtenbideak bilatzea eta gure urian daukan eragina murriztea.

Elkarbizitza

- Beste pertsona batzuekin errespetuz eta tolerantziaz bizitzea da guretzat elkarbizitza. Urrian bizitzen jakitea. Horrek esan nahi du heziketa, gizalegea, adeitasuna eta begirunea erabiltzea eguneroko bizitzan, bai eta umeen, adinekoen eta, oro har, gure inguruan dauden eta behar gaituzten pertsona guztien ongizateaz arduratzea. Hori guztia aniztasuna, kulturartekotasuna eta tolerantzia erabilita, eta hemen dauden eta etortzen ari direnen arteko irekiera eta harrera sustatuz.
- Gure konpromisoa: elkarbizitzarako espazioak sortzea, errespeturako eta gure inguruko pertsonen zaintzarako; eta gure urira etortzen diren pertsonak hartzeko espazioak.

Nortasuna

- Gure ustez, gure ezaugarrien eta balio propioen multzoa da nortasuna. Nondik gatozen onartuz eta baloratuz: historia, kultura, memoria, tradizioak eta idiosinkrasia, baina nortasun hori aldatu egin dela eta aldatu egingo dela eta beste ezaugarri batzuk hartuko dituela jakinik. Ezaugarri horiek sortzailea, berritzailea, irekia eta kulturartekoa dela adierazten dute.
- Gure konpromisoa: gure nortasuna osatzen duten elementu kulturalak eta sozialak gordetzea. Aldi berean, sormenerako eta berrikuntzarako daukagun gaitasunetik datozen beste batzuk sartzeko, eta gure urira etorri edo etortzen ari diren pertsonen ekarpenak sartzeko.

Esfortzua

- Gure ustez esfortzua hau da: proaktibitate eta profesionaltasunaren bidez, zailtasunak gaindituta, pertsonak, erakundeak, enpresek eta entitateak euren helburuak lortzeko erakutsi duten gaitasuna eta adorea. Horrek pertsona bakoitzaren exigentzia, iraunkortasuna eta ardura handia uztartzen ditu ilusioarekin eta borondatearekin, lorpen kolektiboak iristeko.
- Gure konpromisoa hau da: profesionaltasun eta esku zabaltasunetik abiatuta, uri bezala hobetzeari begira etorkizunean ipinitako helburuak lortzeko ahaleginak egitea.

Erantzunkidetasuna

- Gure ustez erantzunkizuna hau da: konpromiso eta betebeharrak partekatuak euren egiteko eta haien ondorioak onartzeko pertsonak, erakundeak, enpresek eta entitateak duten gaitasuna. Erantzunkidetasunak berekin dakar pertsonak eta entitateak denon onerako ekarpenak egin beharra.
- Gure konpromisoa hau da: auzokoen artean erantzunkidetasuna sustatzea; eta uriko erakundeak, enpresak eta entitateen arteko erantzunkidetasunerako egiturak eta prozesuak erraztea.

Parte-hartzea

- Gure ustez parte-hartzea hau da: entzunarazteko, erabakietan eragina izateko eta erantzunkidetasunez ekimenetan eta proiektuetan lan egiteko mekanismoen bidez, gure urian bizikidetzak hobetzen laguntzea.
- Gure konpromisoa hau da: pertsonak parte hartzeko prozesuetan esku hartzeko erakartzea, egoerarik ahulenetan dauden kolektiboak inklusioaz sentiberatasun berezia izanik.

Konfiantza

- Gure ustez konfiantza hau da: pertsonen jokamoldea zintzoa eta elkarlanean izango dela itxarotzea. Gizatalde batzuk gizartetik baztertuta egotea indartu egiten duten aurreiritziei eta estereotipoak aurre egiten die konfiantzak.
- Gure konpromisoa hau da: elkarrenganako konfiantza sustatzea, ezberdinen arteko elkarriketarako eta lankidetzarako espazioak sortuz; baita, sinesgarritasunari eta konfiantzari begira, gardentasunez eta egiazkotasunez jokatzeko ere.

Sormena

- Gure ustez sormena hau da: jakin-nahia eta pentsamendu kritikoa bezalako ahalmenak garatuta, zer edo zer orijinala sortzea. Berrikuntzaren garapenaren hastapenean dago, sormen-prozesuaren ezarpen praktikoa gisa.
- Gure konpromisoa hau da: sormena pizteko eta hori bideratzeko ingurune aproposa sortzea. Eta berrikuntzarako tresnak ematea, guztion ongirako sormenezko alternatibak identifikatuz, proposatuz eta esperimentatuz.

Zintzotasuna

- Gure ustez zintzotasuna hau da: bai pertsonen, bai erakundeak, enpresak eta entitateak jokamolde egoki eta ondratua. Lorpen horretarako gardentasuna nahitaezkoa da. Elkarrenganako konfiantza finkatzeko beharrezko elementutzat jotzen dugu zintzotasuna.
- Gure konpromisoa hau da: pertsonen, erakundeak, enpresak eta entitateak jokamoldean zintzotasuna finkatzea. Baita gardentasunaren kultura sendotzea ere.

Ilusioa

- Gure ustez ilusioa hau da: bizitzan jarrera positiboa edukitzea; guk hala gura badugu eta irmo jokatzuz gero, geure uria hobetu dezakegula sinestea, alegia. Grina sentitzea eta alaitasunez eta interes biziz uriaren proiektu kolektiboari ekitea; gainera, eremu eta arlo guztietatik ekarpenak egin ahalko dira proiektu kolektibo horretarako. Beste alde batetik, aurkezten zaizkigun hobekuntza-aukerez gogoa berotzea.
- Gure konpromisoa hau da: sormenezko ideietan eta proiektu berritzaileetan, baina batez ere errealitate eta lorpenetan oinarritutako ilusio, itxaropen eta baikortasun-giroa sortzea.

Osasuna

- Gure ustez osasuna hau da: gure urian bizi diren pertsonen bizi-kalitatea hobetzen duten aztura osasungarriak indartzeko bizimodu eta hiri-eredu egokiak geure egitea.
- Gure konpromisoa hau da: herritarren artean ohitura osasungarriak zabaltzea; dauden kirol ekipamendu, instalazio eta programak osatzea; elikadura eta ondo elikatzeko kultura hobetzea; eta osasunerako kaltegarriak diren substantzien kontsumoa murrizteko lan egitea.